



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKARAREN ETA ETENGABEKO
PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKERA Y FORMACIÓN
CONTINUA

Erabakia, 2019ko ekainaren 6koa, UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordearena, 2019-2020 ikasturtean AZPkoentzako euskara ikastaroetan parte hartzea eskatu dutenen behin betiko onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzeko dena.

Resolución de 6 de junio de 2019, del vicerrector de Euskera y Formación Continua de la UPV/EHU, por la que se dispone la publicación de las listas definitivas de solicitantes admitidos/as y excluidos/as a los cursos de euskara para el PAS en el curso 2019-2020.

2019ko maiatzaren 2an Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak UPV/EHUko AZPkoentzako euskara ikastaroen deialdia argitaratu zuen eta maiatzaren 27ko erabakiaren bidez behin-behineko zerrendak argitaratu ziren. Euskalduntze batzordearekin bildu da ekainaren 3an, eta egondako erreklamazioak aztertu ondoren, xedatutakoari jarraituz,

El 2 de mayo de 2019 el Vicerrector de Euskera y Formación Continua publicó la convocatoria de los cursos de euskara para el PAS de la UPV/EHU, y mediante resolución del 27 de mayo se publicaron los listados provisionales. Después de reunirse con la Comisión de Euskaldunización el 3 de junio, y examinadas todas las reclamaciones, de acuerdo con lo establecido,

Erabaki dut:

Dispongo:

Lehen: 2019-2020 ikasturtean AZPkoentzako euskara ikastaroetan parte hartzea eskatu dutenen behin betiko onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzea: 5 orduko eta barnetegietakoak, lanorduetan 2 ordukoak, lanorduz kanpokoak, autoikaskuntzakoak, 3. HEko deialdi berezikoak eta 4. HE prestatzekoak.

Primero: Publicar las listas definitivas de solicitantes admitidos y excluidos a los cursos de euskara para el PAS en el curso 2019-2020: 5 horas e internados, 2 horas dentro del horario laboral, 2 horas fuera de horario laboral, autoaprendizaje, los de la convocatoria especial del PL3 y los del PL4.

Bigarrena: liberazioetako kupoetan ez dago mugarik. Muga bakarra IVA Pek jarri digu, eta **autoikaskuntzarako eskari onartuak ezin izango dira lanorduz kanpoko ikastaroetan onartutako eskari guztien % 15a** baino gehiago izan.

Segundo: No hay límite en el número de liberaciones, salvo que las solicitudes de autoaprendizaje no podrán superar el 15 % del total de las solicitudes aceptadas para cursos fuera de horario laboral, según la convocatoria del IVAP.



Jon Zarate Sesma

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea
Vicerrector de Euskera y Formación Continua

